

1/2024 akta

OSATEK SOZIETATE PUBLIKOAREN ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN AKTA, 2024KO MARTXOAREN 20KOA

Presidenteak deituta, Administrazio Kontseilua eratu da OSATEKen egoitza sozialean (Urkixo zumarkalea 36, 5.a, 48011 Bilbao), 1. aretoan, beheko solairuan, 2024ko martxoaren 20ko 16:00etan. Hona hemen bertaratutakoak eta gai-zerrenda:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

José Luis Quintas Díez

BATZORDEKIDEAK:

M^a Rosa Pérez Esquerdo

Víctor Bustamante Madariaga

Pedro Luis Sáenz Palacios

Susana López Altuna, idazkari gisa.

Hernando Lacalle Edesok eta Fernando Aguirre de Miguelek ezin etorria adierazi dute, eta lehendakariaren esku utzi dute botoa.

Josu Xabier Llano Hernaiz OSATEKeko zuzendari-gerentea ere bertaratu da bilerara, hitzarekin baina botorik gabe.

GAI-ZERRENDA:

1. Aurreko bileraren akta onartzea, hala badagokio.
2. 2023ko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena egitea.
3. OSATEKen Bigarren Euskara Plana onartzea (2023-2027).
4. Gora jotzeko errekurtsoen ebazpena.
5. Galde-eskeak.

Jarraian, OSATEKeko zuzendari gerentea Josu Xabier Llanok hartu du hitza, gai-zerrendako puntuak jorratzeko:

1. Aurreko bilkurako akta onartzea, hala badagokio

Aurreko bilkurako akta irakurri ondoren, aho batez onartu da.

2. 2023ko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena egitea.

Betean auditoretzak 2023an egindako auditoretza-txostena irakurri da. Ikuskatutako dokumentazioa honako hauek osatzen dute: 2023ko abenduaren 31ko balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketan egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria eta memoria.

Zuzendari gerenteak auditoretza-txosteneko datuak berrikusi ditu, eta ondorioztatu du kontuek enpresaren egoeraren irudi fidela adierazten dutela. Gainera, auditoretza-txostena ikusita, kudeaketa-txostenak jasotzen duen informazioa bat dator 2023ko ekitaldiko urteko kontuetako informazioarekin, eta haren edukia eta aurkezpena bat datoz aplikatu beharreko araudiarekin.

Bilerak 2023ko ekitaldiko urteko kontuei eta kudeaketa-txostenari buruzko informazioarekin jarraitu du, eta honako hauek dira kontu horien eta itxiera ekonomikoaren daturik esanguratsuenak:

- Egoera-balantzea 2023ko abenduaren 31n:
Aktiboa guztira (arrunta eta ez-arrunta): 20.415.344 €
Ondare garbia + pasiboa: 20.415.344 €
- Galdu-irabazien kontua 2023ko abenduaren 31n:
Ekitaldiko emaitza: 467.154 €
- 2023ko ekitaldiko emaitzak banatzeko proposamena
Banaketa-oinarria: ekitaldiko emaitza: 467.154 €
- Ibilgetu materiala:
Amaierako balio garbia: 12.995.531 €
- Ibilgetu ukiezina:
Amaierako balio garbia: 396.516 €
- Zerbitzuak emateagatiko diru-sarrerak:
EM: 26.240.383 €
Guztira: 26.240.383 €
- Langile-gastuak
20.779.898€
- Ustiapeneko beste gastu batzuk
2.659.174€

Sozietatearen plantilla finko osoa 2023/12/31n: 166 (117 emakume eta 49 gizon).

Ondoren, zuzendari gerenteak kudeaketa-txostenaren atalak azaldu ditu.

Emandako dokumentazioaren berri eman ondoren, eta Kapital Sozietateei buruzko Legearen testuategina onartzen duen uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 253. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Administrazio Kontseiluak honako hau erabaki du:

"Lehenengoa: Sozietateari dagozkion 2023ko Urteko Kontuen eta 2023ko Kudeaketa Txostenaren formulazioa onartzea, eta Kontseiluan dauden kide guztiak ados daudela adierazteko sinatzea.

Bigarrena: Sozietatearen Akziodunen Batzar Nagusiari jakinaraztea eta proposatzea, hala badagokio, aipatutako 2023ko ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta emaitzak banatzeko proposamena, Kontseiluan aurkeztutako baldintzetan».

3. OSATEKen Bigarren Euskara Plana onartzea (2023-2027), hizkuntza-eskakizunak esleitzea eta derrigortasun-data berriak.

Zuzendari gerenteak OSATEKen Bigarren Euskara Planaren alderdi garrantzitsuenak aurkeztu ditu.

Lehenik eta behin, 2022ko abenduan amaitutako Lehen Euskara Planaren amaierako ebaluazio-datuak jasotzen dira, eta OSATEKen 2023-2027 aldirako Bigarren Euskara Planaren edukiak eta helburuak azaltzen dira.

Plan hau langile guztiei eta sindikatuen ordezkarietara helarazi zaie, ekarpenak egiteko. Ildo beretik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara bidali da, eta hark aldeko txostena eman du, Kontseiluaren bilera honetan aurkeztuta.

Dagozkion azalpen eta argibideen ondoren, Administrazio Kontseiluak aho batez onartu du 2023-2027 aldirako Bigarren Euskara Plana.

Bigarrenik, Kontseiluari planteatzen zaio derrigortasun-data berriak ezarri behar direla, OSATEKen Administrazio Kontseiluaren 2018ko ekainaren 21eko Erabakian jasotakoa betetzeko. Erabaki horren bidez, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 mailak esleitzen zaizkie OSATEKeko lanpostu guztiei euskararen ezagutzari dagokionez, bai eta lanpostu jakin batzuetarako derrigortasun-data ere, haien izaeraren eta kokapen geografikoaren arabera.

2018ko akordioan ezartzen den bezala, OSATEKen Administrazio Kontseiluari dagokio, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikako Sailburuordetzari kontsulta egin ondoren, lanpostu sortu berrien hizkuntza-maila eta derrigortasun-data zehaztea, bai eta aurretik zeuden plazetan irizpide horiek eguneratzea ere, herritarrei bi hizkuntza ofizialetan zerbitzu emateko gai diren langileen proportzioetara iristeko, OSATEKen laguntza-zentro bakoitza dagoen ingurune soziolinguistikoaren arabera.

Zuzendaritzak egindako proposamena Osakidetzako Hirugarren Euskara Planean kontuan hartutako irizpide berberei eustea da, aurretik aipatutako Administrazio Kontseiluaren Erabakian bere garaian adostu ziren salbuespenei eutsiz. Proposamen horrek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aldeko txostena du.

Dagozkion eztabaidak egin ondoren, Administrazio Kontseiluak erabaki hau hartu du, eta II. eranskinean jasoko da. 2023-2027 Euskara Plana:

Lehena.- Administrazio Kontseiluaren 2018ko ekainaren 21eko Akordioan jasotako plaza guztietarako B2 mailari eustea eta erabaki horren ondoren sortutako egiturazko plaza guztietarako B2 maila ezartzea.

Bigarrena.- Aipatutako alderdiak kontuan hartuta, derrigortasun-datak dituzten lanpostuen portzentajeen eta kopuruaren taula hau onartzea (ikus 4. eranskina, zentroko datuei dagokienez):

Osatek lan-kategoria	Gutxieneko % derrigortasun datarekin	Lanpostu kopurua, guztira	Lehenengo Euskara Planean derrigortasun-data ezarri zaien lanpostuen kopurua	Derrigortasun-data berriak dituzten lanpostuen kopurua	Derrigortasun-data duten lanpostuen %, guztira
Idazkariak	100%	45	14	+31	45 (100%)
Laguntzaileak	40% - 60%	48	15	+14	29 (63%)
Teknikari manipulatzaileak	40% - 60%	51	14	+18	32 (66%)
Erradiologoak	40% - 60%	60	10	+24	34 (57%)
Egitura (Bizkaia plaza)	40% - 100%	22	6	+14	20 (91%)
GUZTIRA	%53 (3)	226	59	+101	160 (71%)

Hirugarrena.- B2 mailaren derrigortasun-data 2025/12/31 ezartzea, Idazkaritza eta Laguntzaile estamentuetako lanpostuetarako (5. eranskina).

Laugarrena.- B2 mailaren derrigortasun-data 2027/12/31 ezartzea Teknikari Manipulatzailer, Erradiologo eta Egiturako Langileen estamentuetako lanpostuetarako (5. eranskina).

Bosgarrena.- 86/1997 Dekretuak, 67/2003 Dekretuak eta OSATEKen Administrazio Kontseiluaren 2018ko Akordioak onartutakoaren arabera, derrigortasun-datekin eta euskara-maila egiaztatzearekin lotutako puntu hauek indarrean mantentzea:

- Proposamen honetan jasotako lanpostuen derrigortasun-datak esleitzeko, bi lehentasun-irizpide hauek aplikatu dira: ziurtatutako euskara-maila eta lanpostua antzinatean handienekotik betetzeko data.
- Lanpostuaren derrigortasun-data igaro ondoren, lanpostua eskuratzeko ezinbesteko baldintza izango da langileak B2 maila egiaztatuta izatea.
- Aurreko b) puntuan adierazitako baldintza betetzetik salbuetsita daude 2018ko Akordioan agertzen diren langileak. Akordio horretan, langileen nortasuna eta profesional bakoitzaren kategoria jasotzen dira.
- Aurreko c) puntuan jasotako salbuespenez gain, titular diren lanpostuari dagozkion hizkuntza-eskakizunen derrigorrezkotasun-arabide orokorra betetzetik salbuetsita egongo dira titular diren lanpostuari derrigortasun-data ezartzen dion plangintzaldi bakoitzaren hasieran 45 urte baino gehiago dituzten pertsonak, betiere interesduna ados badago. Salbuetsita egongo dira, halaber, titular diren lanpostuari alde aurretik esleitutako hizkuntza-eskakizuna aldatzea onartzen bada, 45 urtetik gorako pertsonak, interesdunaren alde aurreko adostasunarekin.
- Kontratazio puntualak edo langile berriak prestatzeko egiten diren ordezkapen-poltsetatik datozenak, bai ordezkapen bidez betetzeko (plaza hori betetzen duen enpleguaren gaixotasunagatik baja; lanpostu hori betetzen duen enpleguaren amatasun- edo aitasun-lizentziagatik baja; ordaindu gabeko baimena; eszedentzia;...), bai ekoizpenaren inguruabar bereziengatik betetzeko, ezarritako derrigortasun-data igaro ondoren egingo dira, nahitaez, bete beharreko lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna behar bezala egiaztatuta duten langileekin.

f) Aurreko e) puntuan adierazitako hizkuntza-agindua partzialki edo guztiz baztertuko da ordezkapenen zerrendan lanposturako eskatzen den maila duen pertsonarik ez badago: kasu horretan, egiaztatutako B1 maila duten ordezkoengana joko da. Bestela, egiaztatutako mailarik ez duen pertsona bat kontratatuko da. Prozedura hori behar bezala dokumentatuko da horretarako egindako aktan.

g) Lanpostu huts bat eskuratzeko deialdi publiko guztietan, eskainitako lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data bete beharko dira.

h) Administrazio Kontseiluak, 2024ko martxoaren 20an, 2. Euskara Planean jasotako 226 lanpostuen hizkuntza-egoera onartu ondoren, dagokien hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-dataren ehuneko aplikatuko zaizkie une horretatik aurrera sortzen diren lanpostu guztiei. Derrigortasun-datarik ezartzen ez zaien lanpostuen kasuan, euskara jakitea meritutzat hartuko da, indarrean dagoen legeriak adierazten duen bezala.

i) OSATEken Administrazio Kontseiluak zehaztuko ditu lanpostu bakoitzari dagokion hizkuntza-maila eta derrigortasun-data, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari kontsulta egin ondoren.

j) B2 mailari dagokion euskara-ezagutza 187/2017 Dekretuan zehaztutako titulu edo ziurtagiriren baten bidez egiaztatuko da (2017ko uztailaren 20ko EHAA, 138. zk.).

k) OSATEkeko langileek orain arte ez badute egiaztatu betetzen duten lanpostuari dagokion euskara-maila, eskubidea izango dute, lehenetsiak eta aurrekontuak kontuan hartuta, behar den hizkuntza-prestakuntza jasotzeko, hala badagokio, lanpostuari esleitutako maila egiaztatu ahal izan dezaten. Prestakuntza hori aurreikusita eta lehenetsita dago indarrean dagoen euskararen erabilera normalizatzeko planean.

Seigarrena. – Akordio hau OSATEken iragarki-oholetan argitaratzea.

4. Gora jotzeko errekurtsoen ebazpena.

Gerenteak jakinarazi du gora jotzeko bi errekurtsu aurkeztu dituztela LAB sindikatuko enpresabatzordeko kideek gerentziaren bi ebazpenen aurka.

- Gora jotzeko errekurtsua, 2024ko martxoaren 1ekoa, Jorge Medrano Pejenuatek LAB ordezkatzuz jarria OSATEkeko zuzendari kudeatzailearen 2024ko otsailaren 15eko xedapenaren aurka. Xedapen horren bidez, Amara-Donostiako Osatek zentro berrirako barne-mugikortasuneko deialdia etetea erabaki zen.

Planteatutakoaren inguruabarrak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Kontseiluak gora jotzeko errekurtsua ezestea eta erabaki hori errekurtsogileari jakinaraztea erabaki du.

- Gora jotzeko errekurtsua, LABen ordezkari Javier Espeso Marijuanek 2024ko martxoaren 4an jarria, OSATEkeko zuzendari gerentzearen 2024ko otsailaren 5eko xedapenaren aurka. Xedapen horren bidez, Gipuzkoako teknikari manipulatzaileen koordinatzaile berri bat izendatzea erabaki zen.

Planteatutakoaren inguruabarrak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Kontseiluak gora jotzeko errekurtsua ezestea eta erabaki hori errekurtsogileari jakinaraztea erabaki du.

5. Galde-eskeak.

Kudeatzaileak gai-zerrendan sartu ez den beste gai bat helarazi du, eztabaidatzeko eta, hala badagokio, Kontseiluak bilera honetan ebazteko.

Zuzendari Gerenteak azaldu duenez, Teknikari Manipulatzaileen kategorian plantilla finkatzeko prozesuko ekintza jakin batzuk berrikusteko prozesu baten ondorioz, deialdian dauden beste kategoria batzuei ere eragin zaie. Zehazkiago, laguntzaileen kategorian egindako berrikuspenaren ondorioz, langile bat lanpostutik mugiarazi dute plaza finko bat lortu ondoren.

Erreferentzia gisa azaltzen da Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak azken urteetan emandako zenbait epaiek onartu egin dutela "fedee oneko oposiziogileak" deritzona dagoela, egoera jakin batzuk deskribatzeko. Egoera horietan, izangaiak babestu egin behar dira, beren lanpostutik mugitzea eragotziz, baldin eta inolako errurik ezin bazaie egotzi Administrazio publikoak ezarritako jarduera zehatz-mehatz bete eta deitutako plazetako bat lortu zuten izangaiei.

Bestalde, Euskal Enplegu Publikoaren Legeak 78.8 artikuluan ezartzen duenez, enplegu publikoaren eskaintzan konprometitutako plazen kopurua ehuneko hamar handitu ahal izango da, onartu zenetik lanpostu hutsak sortu badira.

Aukera horri dagokionez, zuzendari gerenteak jakinarazi du, Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren 2023ko urriaren 4ko txostenaren bidez, Osatek sozietate publikoan plantilla handitzeari buruz, 8 plaza sortzearen aldeko txostena egin zela, eta horien artean, laguntzaile-kategoriako 2 plaza daudela.

Azaldutakoaren arabera, eta Zuzendaritza Gerentziak proposatuta, uste du betetzen direla lanpostutik mugiarazitako langilea "fedee oneko oposiziogilezat" jotzeko baldintzak. Hala, OSATEKen Estatutu Sozialen 14 b) artikulua arabera, eta kontuan hartuta enplegu publikoaren eskaintza onartu ondoren lanpostu hutsak sortu direla, OSATEKen 2022ko lan- eskaintza publikoaren deialdia beste lanpostu batean handitzea erabaki du OSATEKen Administrazio Kontseiluak, plantillako langile finko izateko.

Handitu den lanpostu kopurua 1 da OSATEKen merezimendu-lehiaketaren bidez aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdian.

Erabaki hau EHAAn argitaratuko da, eta OSATEKeko gerentziako zuzendaritzari ahalmena ematen zaio hura gauzatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, bilera 18:30ean amaitu da.



IDAZKARIA

Sin.: Susana López Altuna



LEHENDAKARIA

Sin.: José Luis Quintas Díez